



17^{g.} urtea

1927-GARAGARIĀ

282^{g.} zenbakia

EUSKEL-IDAZLEAK

UTS ETA OKERAK

Euskeraz itzegiten eta idaztean egiten diran uts eta okerez gauza asko idatzi leitekez; baña lantxo onetan uts eta okerik agirienak bakarik batuko dodaz.

Euskera gaizki erabilten dabe: izlariak, idazleak, beñsolariak eta ereslariak. Batzuk yoskeran, beste batzuk idazkeran, eta beste batzuk izki-bakoitz ezañkeran. Oregaitik, lantxo onetan euskel-yoskera, idazkera, ta izki-bakoitz ezañkeraz mizkitxo bat esango dot.

I

EUSKEL-YOSKERA UTSAK

Euskel-yoskeran uts egiten dabe:

1^{go.}—*Ko (go)*'gaz amaitzen daben itzak, eurakaz alkafitzen diran itzen ostean ipintzen dabezan guztik. «Karmel'go Amari SALVE» esan beaŕean, «Ama Karmengo'ari SALVE» esaten daben guztik.

2' gafen.—Érderazko *relativo* deritxona, *ze, zein, nor*, edo *non*'kin euskeratzen daben guztiak. «Edeía dan zerua» esan bea-
fean «zerua zein dan edeía» esaten daben guztiak.

3' gafen.—Izen onuragañiak onuratuen ostean ipinten dabeza-
nak. «Andoni Deuna» esan beafean, «Deun Andoni» esaten
dabenak.

4' gafen.—*Adverbio*'ak aditzaren ostean erabilten dabezanak:
«Aita etoñi da gauñ», «Aita gauñ etoñi da»-n ordeez, «Gauñ aita
etoñi da»-n ordeez erabilten dabenak.

5' gafen.—*Infinitivo*'an dagoan aditza, bere *determinante*
baño geroago erabilten daben guztiak: «Jaungoikoa ona dala de-
ritxat» esan beafean «deritxat Jaungoikoa ona dala» esaten
dabenak.

6' gafen.—Aditz-zuztraien eta bere atal-lagunen artean beste
itz batzuk sartzen dabezanak. «Askok trágau pekatua egiten
dabe», «pekatua askok trágau egiten dabe» esan beafean.

Eta onetariko beste érderakada batzuk esan edo idazten
dabezanak.

Arau txiki baten yoskera txaf guztiak batu ezin leitezelako,
ageñkai baten ipiniko dodaz yoskera okeñak eta beste baten onak:

YOSKERA OKERAK

¡Qué hermoso! ¡Zein (ze) edeía!

En el cual traigo. Zeinetan da-
kañdan.

Porque no tenemos. Zeren eztau-
kagu.

Me ha dicho que no viene. Esan
daust ezdatoñela.

Cómo ó según se ha dicho. Zelan
esan dan.

¡Qué muchacho tan hermoso! ¡Ze
mutil edeía!

*Voy á Bilbao donde tengo la ma-
dre.* Bilbora noa, non daukadan
ama.

Cuántos tengo se han de comer.
Zenbat daukadazan jango dira.

¡Cuántos! ¡Zenbatzuk!

Zelan zeruan, alan luñean.

YOSKERA OKERAK ZUZENDUTA

¡Au (ori, a) da bai edeía! ¡Onen
(oñen, aren) edeía!

Eta onetan (oñetan, aretan) dakañt.

Eztaukagu ta... Eztaukagulako.

Ezdatoñela esan daust.

Esan dan legez.

¡Au da mutil edeía!

Bilbora noa, an daukat ama-eta.

Daukadazanak yango dira.
Amaikak. Makiña batek... Ainbatek
Zeruan lez luñean be.

YOSKERA OKERAK

De tal modo amó á los hombres que dió á su unigénito. Gizonak ainbeste maitetu ebazan ze Bere Seme bakara emon eban.

Mientras más blanduras se emplean con algunos hombres, es peor. Zenbat eta koipekeri geyago gizon batzukaz erabilten dan, txafago.

Cuanto más libros euskéricos se lean, más se aprende. Zenbat eta euskel-liburu geyago irakufi, geyago ikasten da.

Estoy avergonzado. Lotsatuta nago
Tengo sed. Egarria daukat.
Me lo ha hecho. Egin nau.
Hasta el monte. Mendira artean.
Este entrará en el cielo con las abarcas: Au zeruan abarkakin sartuko da.

Me amo. Maite naz.

Tiene miedo de ti. Zeure bildura dauko.

Capítulo V, en que se enseña cómo se ha de amar á Dios.
V'garren atzalburua, zenetan erakusten dan zelan Jaungoikoa maitatu bea' dan.

YOSKERA OKERAK ZUZENDUTA

Bere Seme bakara emoteraño Jai-
nak gizonak maite ebazan.

Gizon batzukaz koipekeririk geyago erabilirik, txafago.

Euskel idaztiak geyago irakufirik euskera geyago ikasten da.

Lotsa naz.
Egari naz.
Egin daust.
Mendira arte.

Abarka ta guzti sartuko da au zeruan.

Neure burua maite dot.

Zeuri bildur da.

V'garren atzalburua. Jaungoikoa zelan maitatu bea' dan erakusten da.

II

EUSKEL-IDAZKERA OKER' BATZUK

Euskel-idazkera okerak dagoz, bakatzak (guión—) bea' diran legez erabilten eztiralako, itz-soñuak diñuskun legez idazten ezto-
gulako, eta eri-itzak garbituta erabilten eztoguzalako.